

Hamar, bederatzi, zortzi...

1978ko ekainaren 17an, Franco hil eta 3 urtera, 40.000 lagunek parte hartzen dute kontzertu batean, *Bai euskarari* kanpainaren amaiera Bilboko San Mames estadioan. Gauerdian gutitan, Euskaltzaindiaren ordezkariak deialdi anonimo baten edukia irakurtzen dute oholtzan: «Gauerdian bonba batek eztanda egingo du estadioan». Jarritako orduan, jendetza oso oihukatzen hasten da: «Hamar, bederatzi, zortzi...», eta *Eusko gudariak gera* abesten du, euskal borrokalarien abestia.

Euskaraz hitz egitea irabazi dugu. Besteak beste, abeslari burugogor batzuei ere zor diegu, metrailetak bizkarrean dituztela, polizia etxetan atxiloturik eta abar... Hego Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herrian gizarte tradizional eta klerikal bat inarrosi dute. Torturak, ankerkeriak salatu dituzte, kontzientziak esnatu eta beren duintasuna berreskurarazi euskal herritarrei.

Haien abestia historiako liburu bat da, 1970eko hamarraldikoa. Hitzak zuzen eta argiak dira. Faxismoaren prismatik irakurri behar dira. Abeslariak borrokaren oihartzunak dira. Errefuxiatuei, presoiei, langilei, nekazari munduari ahotsa eman diete. Euskal herritarrek kantua bere egin dituzte.

Hamarraldi paregabe horretan gertatzen dira: kultur berritzea, lehen kooperatiben sorrera eta lehen euskarazko «ikastola». Euskal herritarrek ulertu dute etorkizuna oso beren gain dagoela. Gure esku dago gaur kantari hauek omentzea.

elkar



elkar

FRANCOREN MENDE KANTATZEN GENUENEAN

Colette Larraburu

FRANCOREN MENDE KANTATZEN GENUENEAN



Colette Larraburu

elkar



Colette Larraburu

Colette Larraburu-Dolouets, 65 urtekoa, sortzez landestarra, bere kazetari ibilbidea Euskal Herrian egina da, batez ere *La Semaine du Pays Basque* astekarrian eta Agence France Presse agentzian.

Donibane Lohizune bere kokaleku egin zuenetik, ia berrogei urte daramatza Euskal Herriaren historiaren gorabeherak aztertzen. Jadanik bi libururen egilea da. Lehena, *Euskal rock'n'roll ou L'histoire du rock basque*, Peio Etcheverry-Ainchartekin batera idatzitako edizio elebiduna (*Atlantica*, 2001). Bigarrena, *Rendez-vous, place Saint-André - Trente ans de vie du Café des Pyrénées* (Hitzordua San Andres plazan. Hogeita hamar urte Café des Pyrénées-en) (Elkar, 2011). *Francoren mende kantatzen genuenean* hirugarren liburua eskaintzen digu (*Quand nous chantions sous Franco* jatorrizkoan). Omenaldi bizia 1970eko hamarraldian, beren euskarazko kantuekin, frankismoa desafiatu zuten abeslariari, Hego Euskal Herriko zentsuratutako «haurrideen» ordezkari hitz eginez.